



MOZZARELLA RAVIOLIAK TOMATE ETA PESTOAREKIN

OSAGAIAK

(4 pertsonarentzat)
2 Mozzarella-poltsa

Tomatea egiteko:

2 Tomate heldu

Baratxuri-ale 1

Tipula 1/2

Erramu-hosto 1

Albaka-hosto 1

25 ml Pesto-saltsa

25 g Rukula

PRESTATZEA

Mozzarella paketeak zabaldu eta ura kenduko diegu.

Zati txiki bat bereizi eta mikrouhin-labean disolbatuko dugu 10 segundotan.

Labeko paperean aterako dugu eta arrabolaren laguntzarekin zabaldu egingo dugu. Oso olata fina geratuko zaigu

Gainerako zatiekin gauza bera egingo dugu. Tomatearen betegarria:

Tomatea birrinduko dugu, Tipula eta baratxuria txikituta jarriko ditugu sutan.

Txigortu egingo dugu. Erramua eta tomatea gehituko ditugu. Su txikian utziko dugu loditzen, lurrundu arte. Hozten denean, erramua kenduko dugu eta albaka txikitua gehituko dugu.

Olatak tomatearekin beteko ditugu, bolumen pixka bat emanaz. Platerean ipiniko dugu, pesto-saltsa botaz eta albaka-hostoekin apainduko dugu.



PREZIOA
BAXUA



DENBORA
40'



ZAILTASUNA
7/10



OSASUNGARRIA
10/10